

Oñatiko campuseko 61 ikasleri graduko eta graduondoko diplomak eman dizkie Mondragon Unibertsitateak.

2012/06/08

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak titulu akademikoak eman dizkie, ekainak 1ean, Oñatiko campuseko 61 ikasleri. Ikasle horietatik 36 graduatuak izan dira; Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasketak burutu dituztenak eta Zuzendaritza Idazkaritzakoak. Horrez gain, beste 25 ikaslek graduondoko titulua jaso dute Enpresa Zuzendaritzako Masterrean.

Diplomak emateko ekitaldia 18:00etan izan da, Oñatiko campuseko entzunaretoan. Ekitaldi akademikoan Lander Beloki Enpresagintza Fakultateko dekanok eta Josu Ugarte Mondragon Korporazioko Nazioarteko Eragiketa zuzendariak parte hartu dute. Azken horrek hitzaldi hau eskaini du: "Globalizazioa eta gu: Zer aukera sortzen zaigu?". Amaiera-ekitaldian Iosu Zabala Mondragon Unibertsitateko errektoreak hartu du parte.

